

LOIOLAKO IÑAZIO: TENTSIOAK INTEGRATZEN MAISU

Kristauok, gure espiritu bizitzan zehar, hainbat tentsio jasan behar ditugu: asketismoaren eta mistizismoaren artekoa, gizabanakoaren eta elkartearen artekoa, humanismoaren eta trazendentziaren artekoa, inkulturazioaren eta unibertsalismoaren artekoa, kontenplazioaren eta ekintzaren artekoa, etabar.

Jesulagundiaren espiritualitatearen ere, kristautasuna bizitzeko era bat denez, tentsio hauek azaltzen dira, baina Iñazio tentsioak integratzen maisu azaltzen zaigu.

Hasieratik esan behar dugu Iñazio ez dela teorikoa. Idatzita utzi zuen guztiak baieztatzen du hau, dena bere esperientzia pertsonalean oinarritzen baita. Era berean esan dezakegu ere, tentsio hauek bere bizitzan integratu zituela. Izan ere, Iñazio ez da alde bietatik bateko gizona. Iñaziok armonia maite du eta horregatik oreka bat lortzen ahalegintzen da tentsioan dauden bi alderdien artean.

Lantxo honetan tentsio espiritual biren integratzea ikutuko dugu: humanismoaren eta trazendentziaren artekoa eta kontenplazioaren eta ekintzaren artekoa.

Humanismoaren eta trazendentziaren arteko tentsioa

Gaur egun ez du inork zalantzan jartzen Iñazio humanista handia izan zenik. Bere humanismoa ez da, noski, bere denborako jakintsuen erakoa, Erasmo edo Vivesen erakoa adibidez. Iñazioren humanismoa beste era batekoa da eta beste oinarri bat du: bere esperientzia pertsonala. Iñazioren humanismoa kristau humanismoa da eta ikuspegi honetan finkatzen da: gizakia, Jainkoaren irudia denez, guretzako maitagarria da.

Iñazioren gizazaletasuna ez da bat-batekoa. Neurri hau ere, beste guztiak bezala, bere bizitzari loturik dago eta bere Jainkoarekiko esperientzia sakontzen doan neurrian, bere humanismoa ere hazi egiten da. Hazketa hau oso argi ikusten da Iñazioren historia pertsonalean.

Gauza espiritualetan gordin zegoen garaian munduko gauzak gutxietsi egiten zituen, Jainkoarengan bakarrik usteona jarritz... eta bere gorputzaz ez zen bat ere arduratzen: «Garai hartan ohi zenez ilea apaintzen oso begiratu izan zelako (eta berak oso ile ederra zeukan), zetorkion bezala uzteko erabakia hartu zuen, orraztu gabe eta mozteke, batere estali gabe gau eta egun. Eta horretxegatik oinetako eta eskuetako atzazalei ere hazten uzten zien, horretan ere oso begiratu izan bait zen» (*Erromesaren bidea*, 19.zenb.).

Baina bere espiritualitatean sakontzen doan neurrian eginetan balioa aurkitzen du eta orduan ohartzten da Jainkoaren zerbitzuak mundutik alderatu ez ezik mundu barruan bizitzera deitzen duela. Eta hau bi arrazoigatik:

bat: Eginetan Jainkoaren aztarrena aurkitzen duelako, eta honek bere anima berpiztu egiten du gauza guztien Egilearekiko.

bi: Gauzetan, eginetan, Jainkoa zerbitzeko bide bat aurkitzen duelako.

Iñazio helduak giza-baloreei garrantzi handia ematen die. Hau garbi ikusten da bere idazkietan, batez ere Aztertza eta Konstituziotako lehen parteko 2.kapituluan. Iñaziok arreta handiz aztertzen ditu jesulagun izan nahi dituztenen doaiak. Eta doai askoz ornitutako gizonak nahi ditu Jesulagundirako. Horregatik kontuan izaten zituen ikasketak egiteko eta apostoladutzan lan egiteko behar diren osasuna eta indarra. Eta gorputzaren itxurari ere, garrantzia ematen zion...

Iñazioren iritiz munduan bizitzeko gai ez denak Jesulagundirako ere ez du balio eta alderantziz, munduan bizitzeko balio duena ona litzateke Jesulagundirako ere. Giza doaei buruz Iñaziok duen ikuspegi orokorra ondo azaltzen da testu honetan: «Jainko gure Jaunak emandako zenbat eta doai gehiago —bai berezkoak, bai goitik ixuritakoak— eduki... eta hauetaz zenbat eta esperientzia gehiago izan, hainbat eta egokiagoa da bat Jesulagundian onartua izateko» (*Konstituzioak* 147 zenb.).

Eta indar berarekin gomendatzen die Iñaziok formazioan dauden jesulagunei ere ahalegindu daitezen beraien berezko doaiak desarroitzen. Giza doaiak erabili egin behar baiditugu. Eta zenbat eta doai gehiago izan eta zenbat eta doai aberatsagoak, hobe. Baina helburua beti argi dago: «jainkoaren aintzarik haundiena» edo «jainko zerbitzurik haundiena». Eta helburu honekin egiten dira ikasketak formazioan eta apostoladutza lana ondoren.

Helburua aipatzerakoan trazendentzia ikutzen ari gara. Eta hau humanismoarekin batera azaltzen zaigu. Izan ere ezin da Iñazioren humanismoaz hitz egin bere trazendentzia ikutu gabe. Are gehiago, lehen ikusi dugun bezala, bere giza-zaletasuna Jainkoarengan duen esperientzian oinarritzen da. Iñaziok, giza bitartekoen gainetik, Jainkoarengan jartzen du bere usteon osoa. Hau baieztatzeko bi jarrera aipatuko ditugu hemen:

1. Jainkoaren aintzarako egokiak direla uste duen ekintzak hasterakoan, nahiz eta giza bitartekoak urriak izan, Iñazio oso ausarta azaltzen da. Bere bizitza osoan horrela jokatu zuen Iñaziok. Eta jarrera berdina aholkatzen die ekintza haundi baten aurrean, bere ahultasuna dela-ta, beldurtzen direnei ere: «Ez beldurtu egin behar haundi baten aurrean zure indar txikia begiratzuz, zeren eta gure gaitasun guztia ekintza horretara deitzen zaituenarengandik etorri behar zaizu eta berak emango dizu bera zerbitzeko behar duzuna... Beraz, zuregan zuregatik deskonfiatu haina usteon izan behar duzu bere ordezkariaren bitartez arazo hau hartzera bidaltzen zaituenarengan...» (125.eskutitza).

2. Hasitako ekintzetan, edonolako eragozpenen gain, Iñaziok ahalegin guztiak egingo ditu ekintza horiek aurrera eramateko. Hemen ere gauza berdina esan deza-kegu: bere bizitza osoa eragozpenei aurpegi ematea izan zela. Eta ez aurpegi eman bakarrik baizik eta, eragozpenak gaindituz, hasitako ekintzak aurrera eraman. Izan ere «jainko zerbitzurako eta aintzarako gauza oso garrantzitsuetan, eragozpenak izatea ez da gauza berria, gauza arrunta baizik; baina zenbat eta zailagoa hainbat eta go-goizkoago izango da ekintza hau, eta aukera egokia beragatik gure Jaunari eskerrak emateko» (40.eskutitza). Eta datozkion eragozpenak gainditzeko behar duen indarra bi aldetatik lortzen du Iñaziok: ekintza hori Jainkoaren zerbitzurako dela pentsatetik eta Jainkoarengan usteon osoa jartzetik.

Esandakoaren arabera, ondo ikusten da Iñaziok ez dituela giza baloreak eta goitik ixuritako baloreak beraien errealtate hutsean hartzen, Jainkoak emandakotzat baizik... Iñaziok bi doai erak Jainkoarengan elkartzen ditu, Jainkoa bait da, era berean. giza doaien eta grazia doaien iturria... Ezin dira bi alderdiak sakabanatu bi printzipio direla pentsatuz «bata graziarena eta bestea naturarena» (50.eskutitza). Berezko doaiak ere, azken batetan, Jainkoak emanak dira. Horrela, bi errealtateak Jainkoaren eskutik eskegita bezala ikusten ditu Iñaziok. Eta hau argi dago zeren eta Iñazioren mugimendu espirituala ez doa eginetatik Egilearengana Egilearengandik eginetara baizik.

Ikuspegi hau Jainkoari dagokion aldetik. Eta gizonaren aldetik, honek bitarteko guztiak —berezkoak eta goitik etorritakoak— erabili behar ditu gauzak aurrera eramateko, baina usteon osoa Jainkoarengan jarriz, zeren eta «berezko bitartekoek... lagunduko dute orokorki... ez beraiengan usteona jartzeko, jainko graziari laguntzeko baizik... (Konst. 814 zenb.).

Alemaniarra bidaltzen dituen jesulagunei, idatziz, ematen dizkien arauetan ere hauxe da printzipio orokorra eta 44 arauetatik lehen tokian azaltzen dena: «Lehendabizi eta batez ere lagunduko duena zera da: norberarengan deskonfiatuz, bihotz zabaltasunez Jainkoarengan usteona izatea... eta egoki lirakeen beste bitartekoak arduratsu erabiltzea...» (52.eskut.). Eta eginen erabilera kontu haundiz zehazten du Iñaziok: herri hartako ohituretara egin; ez taldekerietan parte hartu, denak maitatu baizik; nola ibili, jantzi, hitzegin etab.

Horrela bada, laburki esanez, Iñaziorentzat gauza biek elkarrekin joan behar dute: Jainkoarengan usteon osoa eta eginen erabilera eraginkorra eta arduratsua.

Kontenplazioaren eta ekintzaren arteko tentsioa

Tentsio hau espiritualitatearen historian zehar beti agertu da eta egun gaurkotasun handia du. Eta Inazioaren garaian ere tentsio hau bizirik zegoen baina denbora hartan tentsioa kontenplazioaren alde apurtzen zen, ekintza gutxietsiz.

Azaletik begiratu zergo, Inazio kontenplazioaren aurka dagoela pentsa daiteke. Baina hau ezin da seriooki mantendu. Egia da, bai, Inaziok ez duela nahi bere Lagundiarentzat bizitza kontenplatioa, monastegi-komentual erako bizitza. Egia da baita ere indarrarekin gelditu zituela Jesulagundian horrelako ohiturak sartu nahi izan zituztenen ahaleginak... Baina jarrera hauek, batez ere, Jesulagundiaren karisma ez hutsaltzeko hartu zituen. Gainera, erabaki hauek hartzen zituen garai berean, Erroman, Inazio helduak ordu asko pasatzen zituen otoitzean... Izan ere, otoitzaren beharra askotan azpimarratzen zuen Inaziok: «Egileak berak jakinaraztea animari zein bizi-bidetan jartzea nahi lukeen; goi-maitasunez eta zeru egarritz ase dezala, beraz, eta gero, Jainkoa zerbitzeko biderik erasoena, Hark berak erakutsi dezaioa, animari komeni zaionez» (*Ejertz.* 15).

Dena den, Inaziok ez zuen bat batean bi alderdiak integratzea lortu. Bere espiritu bizitzan sakontzen doan neurrian, integrazio bilatzen ari da. Arlo honetan, Inazioaren bizitzan hiru une bereiz ditzakegu:

1. Manresako garaia. Inaziok bere denbora gehiena —elkarrizketa espiritualetatik kanpo— otoitzean igarotzen du. «Bere zazpi ordubeteko otoitzaz gainera, haren bila zetozen arima batzuei espiritu-gauzetan laguntzen aritzen zen, eta aske geratzen zitzaion gainontzeko egunaldian, Jainkoaz egun hartan hausnartu eta irakurri zuenaz pentsatzen egoten zen» (*Erromesaren bidea*, 26).

2. Ikasketetako garaia. Ikasketek gizon osoa eskatzen dutenez gero, otoitz denbora laburtu egin behar du Inaziok. Otoitzean edukitzen zituen kontsolazioak kontuan harturik, otoitzari denbora kentzea sakrifizio bat da Inazioarentzat baina beharrezkoa Jainkoa zerbitzeko. «Barcelonara itzulirik, oso arduratsu ikasten hasi zen. Baina gauza batek eragozten zion oso: gramatika-haseran egin behar denez buruz ikasten hasten zenean, espiritu-gauzen argi berriak eta gozo berriak etortzen zitzaizkiola. Eta hori hain bizi, buruz ikasi ezin zuela, eta aurka gogor egiten bazien ere, ezin jaurti zituen. Eta... hura zirikaldira zela ezagutu zuen» (*Erromesaren bidea*, 54). Eta Parisera joan zenean zirikaldira jasan zuen: «Kurtsoko ikasgaiak entzuten hastean, Barcelonan gramatika ikastea etortzen zitzaizkion zirikaldira berak hasi zitzaizkion etortzen, eta, ikasgaia entzuten zuen bakoitzean, ezin atenditu zuen, hainbeste espiritu-gauza etortzen zitzaion burura. Eta horrela filosofian gutxi aurreratzen zuela ikusirik, bere maisuarengana joan zen eta zera agindu zion, ez zuela kurtsuan behin ere hutssegino...» (Ibid. 82). Ikasketa garaian edukitako kontsolazioek zera erakutsi zioten: Jainkoarekiko bere maitasuna orain garbiagoa zela...

3. Erromako garaia. Une honetan Jainkoa gauza guztietan aurkitzen du. «Gero eta debozio handiagoa zuela, hau da, gero eta errezagor aurkitzen zuela Jainkoa, eta orain bere bizi guztian baino errezagor. Eta beti Jainkoa aurkitu nahi zuen ordu eta unean aurkitu egiten zuela. Eta orain ere askotan izaten zituela bisioak...» (Ibid. 99).

Hirugarren une honetan, ikusten denez, Iñaziok bere pertsonan tentsio hau ere integratzea lortzen du. Eta era nabarmenean gainera, zeren eta bere kideek ere integrazio hau ikusten baitute. A. Nadalek, gero espiritualitatean oso famatua egingo den esaldi batez deskribatzen digu Iñazio: «ekintzan kontenplatiboa». Honela dio A. Nadalek: «Otoitz era hau eduki zuen A. Iñaziok pribilegio haundiarekin era bikain batetan. Eta gainera zera: gauza, ekintza eta hitz guztietan sentitzen eta kontenplatzen zuela Jainkoaren presentzia eta espiritu gauzen zaletasuna eta era berean kontenplatiboa (hau honela azaltzen zuelarik: Jainkoa gauza guztietan aurkitu behar dela)...» (MHSI, 90, EN, 4, 162).

Eta bere esperientzia pertsonaletik ateratako printzipio honen ondorio bezala, formazioan dauden jesulagunei egunero ordu bete bakarrik eskatzen die otoitzerako. Jainkoa zerbitzeko intentziaz egiten diren ikasketek gizon osoa hartzen baitute. Intenztzio honek lagunduko dio ikasketetan ari denari Jainkoaren presentzian bizitzen. Eta jesulagun formatuei ez die araurik jartzen: otoitzari eta barauari buruz ez dago beste araurik «discreta caritas» delakotik datorrena baizik. (*Konst.* 582).

Baina Iñaziok jesulagunak otoitz gizonak izan daitezen nahi du. Otoitz giroan murgilduak, hau da, ekintza guztiak —bai ikasketak eta bai lan apostolikoa— kutsatzen dituen otoitz giro batetan bizi diren gizonak. Horrela bizi dena da, benetan, «ekintzan kontenplatiboa» edo, beste hitz batzuetan, gauza guztietan Jauna aurkitzen duena...

Iñaziok garrantzi haundiagoa ematen dio, dudarik gabe, otoitzaren nolakotasunari zenbatekotasunari baino. «Otoitzari eta meditazioari buruz... hobe da gizonak egiten dituen gauza guztietan Jainkoa aurkitzea, denbora asko berari ematea baino. Eta jesulagundikoentzat espiritu hau nahi du: ez dezatela debozio gutxiago aurkitu edozein maitasun edo obedientzi ekintzetan otoitz edo meditazioan baino; bada, ez dute ezer egin behar Jainkoaren maitasun eta zerbitzuagatik ez bada...» (67. eskut.).

«Ekintzan kontenplatiboa». Hau da Iñazioren ekarpenik garrantzitsuena apostoladutza espiritualitatean. Iñazioren ekarpena ez baita metodo berri bat sortzea, kontenplazioa gizonaren ekintza osoa egitea baizik.

Gaur egun ere tentsio hau integratzea ez zaigu bat ere erreza egiten. Gure gizarteak lana, produktibitatea da nagusi eta bera gabe ezin dugu ulertu mundua. Beraz, gure mentalitatearentzat kontenplazioa gero eta urrutiago gelditzen da... Egia da, bai, talde txiki batzu aritzen direla kontenplazio ekintzetan baina beraien atseginerako... kontenplazio era hau, orokorki, ekintzari lotu gabe baitago.

Eta tentsioa ez da gainditzen alde bata gutxietsiz. Erronka, hain zuzen ere, bi alderdiak beren osotasunean integratzea da... Nola lor daiteke hori? Alde batetik kontenplazioak, fede esperientziatik historiaren irakurketa kritikoa eskainiz —dizernimenduaren bitartez— argitu behar du edozein ekintza. Eta bestetik, ekintzak eman behar du gaia kontenplaziorako, hau benetakoa eta errealitatean finkatua izan dadin.

IGNACIO DE LOYOLA: MAESTRO EN INTEGRAR TENSIONES

En la vida espiritual de los cristianos resultan inevitables algunas tensiones: entre el ascetismo y misticismo, entre vida individual y comunitaria, entre el humanismo y transcendencia, entre la inculturación y universalismo, entre contemplación y acción, etc.

En S. Ignacio vemos a un hombre no teórico, sino práctico, y maestro en la superación, por ejemplo, de dos importantes tensiones:

1. *Entre el humanismo y transcendencia.* Hoy día nadie duda de que Ignacio fue un gran humanista, aunque no en el mismo sentido que otros como Erasmo o Vives, por ejemplo. El servicio a Dios no sólo no nos aparta del mundo, sino nos llama a vivir dentro de él. Para Ignacio las dos cosas tienen que ir juntas: confianza total en Dios, y una actividad preocupada y responsable.

2. *Entre contemplación y acción.* Ignacio no consiguió en seguida la integración de estas tensiones, pues se pueden apreciar tres etapas: época de Manresa, la de estudios y la de Roma; principalmente en esta última etapa consiguió integrar en su persona estas tensiones; y vivió la fórmula de «contemplación en la acción».

IGNACE DE LOYOLA: MAITRE DANS L'ART D'INTEGRER DES TENSIONS

Dans la vie spirituelle des chrétiens, il est inévitable qu'il n'y ait pas quelques tensions: entre ascétisme et mysticisme, entre vie individuelle et vie communautaire, entre humanisme et transcendance, entre inculturation et universalisme, entre contemplation et action, etc...

Nous voyons en Saint Ignace un homme non pas théorique mais pratique, et maître dans le dépassement, par exemple, de deux importantes tensions:

1. *Entre humanisme et transcendance:* Aujourd'hui personne ne met en doute qu'Ignace fut un grand humaniste, quoique non dans le même sens que d'autres comme Erasme ou Vives, par exemple. Le service de Dieu non seulement ne nous met pas à l'écart du monde mais encore nous appelle à vivre au coeur de ce monde. Pour Ignace les deux choses doivent aller ensemble: une confiance totale en Dieu, et une implication profonde dans une activité responsable.

2. *Entre contemplation et action:* Ignace n'atteignit pas de suite l'intégration de ces tensions, car on peut distinguer trois étapes: l'époque de Manrèse, celle des études et celle de Rome. C'est principalement dans cette dernière étape qu'il arriva à intégrer dans sa personne ces deux tensions, et il vécut la formule de «contemplation dans l'action».